



**TZERRIKO MEDIKAMENTUEN ESKAERA OSPITALEZ KANPOKO PAZIENTEENTZAT
("ospitalean erabiltzeko" izendapena ez duten medikamentuak)**

**PETICIÓN DE MEDICAMENTOS EXTRANJEROS PARA PACIENTES
EXTRAHOSPITALARIOS (medicamentos que no sean de "uso hospitalario")**

GIPUZKOAKO FARMAZIAKO IKUSKARITZaren bidez izapidetzen dira. Helbidea: Antso Jakituna 35, 2. solairua. Donostia. Telefonoa: 943-023067/68. Ordutegia: 8:30 – 14:00 (astelehenetik ostiralera)

FAX bidez (943-023048) bidal daiteke hauxe:

- Mediku-txostena
- **Pazientearekin harremanetan jartzeko TELEFONOA**

Txostena bidali ostean, medikamentuen eskaera izapidetzen dute eta hura jasotzen dutenean:

- Pazienteari deitzen diote medikazioa prest dagoela jakinarazteko.
- Aukera badago, etxetik hurbilen daukan ikuskaritzara bidaltzen dute medikazioa (Arrasate).

Medikazioa jasotzeko dagokion errezeta behar izango du (urdina) edo tratamendu aktiboaren orria (TAO). Hala tokatzen denean, kontu-zenbakia eman behar zaio bertan sar dezan dagokion zenbatekoa.

Diru-sarreraren ziurtagiria eta **dagokion errezeta edo TAO** eraman eta medikazioa hartu beharko du, adierazten zaion tokian.

Tratamenduari jarraipena eman ahal izateko, beste errezeta bat beharko da, mediku espezialistak edo familiako medikuak osatua.

Atzerriko medikamentu horiek "ospitalean erabiltzeko" izendapena dutenean edo ospitaleratutako pazienteentzat direnean, ESIaren Farmazia Zerbitzuaren bitartez izapidetzen dira.

Se tramitan a través de la **INSPECCIÓN DE FARMACIA de GIPUZKOA.**

Dirección: Sancho el Sabio 35, 2º piso. Donostia.

Teléfono: 943-023067/68

Horario: 8:30-14h (de lunes a viernes)

Se puede enviar por FAX (943-023048):

- Informe médico
- **TELÉFONO de contacto del paciente**

Una vez enviado el informe, tramitan la petición de los medicamentos y cuando lo reciben:

- Lllaman al paciente para avisar que la medicación está disponible.
- Si es posible, envían la medicación a la inspección más cercana de su domicilio (Arrasate).

Para recoger la medicación necesitará la receta correspondiente (azul), o la hoja de tratamiento activo (HTA). Si procede, se le dará un número de cuenta para que ingrese la aportación que le corresponda.

Con el **resguardo del ingreso** y la **receta o HTA correspondiente** deberá recoger la medicación donde se le indique.

Para la continuación del tratamiento se necesita de nuevo receta que puede prescribir el médico especialista o el médico de cabecera.

La tramitación de medicamentos extranjeros que sean de "uso hospitalario" o para pacientes hospitalizados será a través del Servicio de Farmacia de la OSI.